

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

201

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa sortzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan (dekretu horren bidez, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa sortzen da). Dekretu hori 2012ko azaroaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 225. zenbakian. Dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

– 2012/5126(26/7) orrialdean, 7. artikuluko 4. idatzi-zatiak honela dio:

«4.– Airearen kutsadura baimentzeko eta jakinarazteko prozedurei dagokionez:

4.1.– Aire kutsa dezakeen jarduera baimentzeko prozeduran, jarduerak iraun bitartean, baimenean ezarritako neurriak egiaztatzea, baliozkotzea eta kontrolatzea (ILE II. maila).

4.2.– Jakinarazpenaren araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE II. maila)».

Baina honela esan behar du:

«4.– Airearen kutsadura baimentzeko eta jakinarazteko prozedurei dagokionez:

4.1.– Aire kutsa dezakeen jarduera baimentzeko prozeduran, jarduerak iraun bitartean, baimenean ezarritako neurriak egiaztatzea, baliozkotzea eta kontrolatzea (ILE I. eta II. mailak).

4.2.– Jakinarazpenaren araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. eta II. mailak)».

– 2012/5126 (26/8) orrialdean, 7. artikuluko 8. idatzi-zatiak honela dio:

«8.– Igorpen eta Iturri Kutsagarrien Erregistro Estatalari dagokionez, jarduerak emandako datuak egiaztatzea eta baliozkotzea».

Baina honela esan behar du:

«8.– Igorpen eta Iturri Kutsagarrien Erregistro Estatalari dagokionez, ILE I. mailako jarduerak emandako datuak egiaztatzea eta baliozkotzea».

2013ko urtarrilaren 11, ostirala

– I. eranskinean, koadroaren 4. atalean, 2012/5126 (26/22) orrialdean, honela dio:

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEaren gaitasun teknikoen baldintzak
4.- Airearen kutsadura.		
4.1.- Baimen-araubidea.		
Jarduerak iraun bitartean, baimenean adierazitako neurriak betetzen diren egiaztatzea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkoko edo osagarri diren arauak.
4.2.- Jakinarazpen-araubidea.		
Jakinarazpen-prozeduran, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkoko edo osagarri diren arauak.

Baina honela esan behar du:

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEaren gaitasun teknikoen baldintzak
4.- Airearen kutsadura.		
4.1.- Baimen-araubidea.		
Jarduerak iraun bitartean, baimenean adierazitako neurriak betetzen diren egiaztatzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak atmosfera kutsa dezaketen jardueren aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkoko edo osagarri diren arauak.
4.2.- Jakinarazpen-araubidea.		
Jakinarazpen-prozeduran, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak atmosfera kutsa dezaketen jardueren aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkoko edo osagarri diren arauak.

2013ko urtarrilaren 11, ostirala

I. eranskinean, koadroaren 8. atalean, 2012/5126 (26/23) orrialdean, honela dio:

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEaren gaitasun teknikoen baldintzak
8.- Zarata		
Jarduera-proiektuetan eskatutako kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezeko edo osagarri diren arauak.

Baina honela esan behar du:

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEaren gaitasun teknikoen baldintzak
8.- Iturri Kutsagarrien Erregistro Estatala		
Jarduerak emandako datuak egiaztatu eta baliozkotzea	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak Iturri Kutsagarrien Erregistro Estatalaren menpeko instalazioen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian

– 9. idatzi-zatiari beste testu bat eransten zaio, I. eranskinean:

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEaren gaitasun teknikoen baldintzak
9.- Zarata		
Jarduera-proiektuetan eskatutako kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezeko edo osagarri diren arauak.

– 4. idatzi-zatiari beste testu bat eransten zaio, II. eranskinean:

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEko langileen barne-prestakuntzarako baldintza orokorrak.
4.- Airearen kutsadura.		
4.1.- Baimen-araubidea.		
Jarduerak iraun bitartean, baimenean adierazitako neurriak betetzen diren egiaztatzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. Bi urteko esperientzia atmosfera kutsa dezaketen jardueren aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
4.2.- Jakinarazpen-araubidea.		
Jakinarazpen-prozeduran, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. Bi urteko esperientzia atmosfera kutsa dezaketen jardueren aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.